

# 1KA2 KARROZERIA

**G1. Elementu mugigarriak manipulatu eta aldatzen ditu.**

**G2. Elementu finkoak manipulatu eta aldatzen ditu.**

**G3. Ibilgailuen egitura elementuak diagnostikatu eta konpontzen ditu.**

**G4. Ibilgailu ezberdinen oinarrizko mekanizazio eragiketak egiten ditu.**

***Iraupena: 27 ordu***

***Taldeak: 3 pertsonako 3 talde.***

## TAILERRAREN ANTOLAKETA

**Hasiera data: 2024/09/06**

**Amaiera data: 2024/09/13**

**Antolaketa: Modulo artekoa**

# Landuriko gaitasunak eta lorpen adierazleak

## G2 ELEMENTU FINKOAK MANIPULATU ETA ALDATZEN DITU

**LA 2.1** Sortutako hondakinak sailkatzen jakitea. Hondakin arriskutsuak identifikatzen jakitea.

**LA 2.2** Karrozeriaren arloko eragiketak egitean hartu beharreko segurtasun-neurriak (norbera eta taldea babestekoak) ezagutzea. Tailerrean aurki ditzakegun segurtasun piktogramak ezagutzea.

**LA 2.3** Tailerrean aurki daitezkeen erramintak ezagutu eta euren erabilera ulertzea. Lan bakoitzerako egokiena den erraminta identifikatzea.

## Zeharkako kompetentziak

### L Lanerako jarrera:

- Mugikorraren erabilera
- Laneko arriskuen prebentzio arauen betetzea
- Ingurumenari buruzko arauak betetzea
- Lanpostuko erreminta eta instalazioen erabilera egokia
- Lanerako prestutasuna
- Taldekideak eta irakasleak errespetatzea

### A Autonomia:

- Egin beharreko lanen ulermen eta antolakuntza egokia
- Tailerreko jarduerak gauzatzeko gaitasuna

### K Komunikatzeko gaitasuna:

- Idatziz komunikatzeko gai izatea
- Ahoz komunikatzeko gai izatea

## Erronka

Amaitu dituzue ikasketak eta tailer batean lanean hasi zarete. Nagusiak egun batzuk eman dizkizue tailerra ezagutzeko: erremintak, makinak eta ekipamendua non dauden, zertarako diren, nola erabili behar diren, zein segurtasun neurri eskatzen dituzten eta hauen hondakinak nola kudeatzen diren aztertzeke eskatu dizue.

Azterketaz gain, hobekuntzak eta tailerreko funtzionamendu egoki, ziur eta ekologikoa mantentzeko neurriak proposatzea espero du nagusiak.

## Baliabideak

Ondorengo baliabideak izango dituzue erabilgarri:

- Ikasgela eta internetera sarbidea dokumentazioa prestatu eta kontsultatzeko
- Tailerrak eta bertako ekipamendu guztiak bisitatzeko aukera
- Ikastetxeko garbigunea bisitatu eta bertako araudia kontsultatzeko aukera

## Entregatuko beharreko lanak

Talde bakoitzak gai bakoitzaren inguruko lanketa egingo du. Txosten bat egiteaz aparte, beronen aurkezpena egin beharko da, eta baita gai bakoitzaren inguruko hobekuntza proposamen bat ere. Adibidez, kontzientziazio kartelak, etiketak, gida liburuak ...

Landuko diren gaien zerrenda:

- ERREMINTAK: Identifikatu, zerrendatu, kokatu, eta zertarako erabiltzen diren azaldu. Erreminten kudeaketari buruzko hobekuntza proposamena (panelak, erreminta kutxak eta biltegiko erremintak).
- SEGURITATEA: Erlazionatu arriskuak babes neurriekin, identifikatu eta azal ezazu bakoitza (makinaria barne (bankada eta elebadora)).
- HONDAKINAK: Identifikatu tailerrean sorturiko hondakinak eta nola kudeatzen diren.

1) TXOSTENA:

- a) 3 Gai multzoen azalpena
- b) Talde bakoitzak esleitutako gaiari buruzko proposamena
  - i) Aurkezpena klase guztiaren aurrean (asteazkena 11)

2) PROPOSAMENA:

- a) Exekuzio erreala

3) GALDETEGIA (ostirala 13)

## Ebaluatu

Teknikoak			
LA 2.1	TXOSTENA (33%)	PROPOSAMENA EXEKUZIO (33%)	GALDETEGIA (34%)
LA 2.2	TXOSTENA (33%)	PROPOSAMENA EXEKUZIO (33%)	GALDETEGIA (34%)
LA 2.3	TXOSTENA (33%)	PROPOSAMENA EXEKUZIO (33%)	GALDETEGIA (34%)

Zeharko Gaitasunak honela ebaluatuko dira. Ebaluazio tutoreak kurtso hasieran azaldu dizuen terminotan gauzatuko da. Errubrikak ondorengo estekean dituzue ikusgai:

<https://docs.google.com/spreadsheets/d/1eqoVF8raP13r9IZ5iLt225tRwvrfkEkn/edit?usp=sharing&ouid=113096232057799999377&rtpof=true&sd=true>

## Taldekatzea eta antolaketa

Taldekatzea ondorengo izango da:

1	<b>Amets, Paulo (Erremintak)</b>	
2	<b>Ibai, Dany (Seguritatea)</b>	
3	<b>Jazmin, Iker (Hondakinak)</b>	

**Astea:** 2024-09-06.tik 2024-09-13.ra

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
8:00 – 9:00					
9:00 – 10:00					
10:00 –11:00					
11:30 –12:30					
12:30– 13:30					
13:30 –14:30					

**Erronkak eskatzen duen beste atalen bat**